



Uztailean inoiz baino auto gehiago saldu dituzte auto multinazionalak Espainian eta Hego Euskal Herrian. XOUSE SIMAL

## Auto salmentak %15 egin du gora

*Prever laguntza plana eragin ona izaten ari dela dio auto ekoizleen elkarteak*

**U**rtariletik uztaileara bitarte, 726.628 auto saldu dira Espainian eta Hego Euskal Herrian. Iazko epe bereko emaitzekin alderatuta, salmentek %15,2 egin dute gora. Auto partikularren merkatua da gehien igo dena, eta hori, hein handi batean, Prever dirulaguntza publikoko planari esker izan da.

Efe/ Madril

AUTO arrunten salmenta urteko lehen zazpi hilabeteetan 726.628ra heldu da. Iazko lehen zazpi hilabeteetan saldutako auto kopuruarekin alderatuta, salmentak %15,2 egin du gora, Espainiako Auto eta Motor Ekoizleen Elkarteak (Anfac) zabaldu duenez.

Uztailean 138.291 auto berri ateratu dira errepideetara, iazko uztailean baino %15,7 gehiago. Hazkunde hori inoiz izan den handiena izan da.

Auto salmentaren igoera handiena auto partikularren merkatuan gertatu da. Zehazki %17 egin dute gora auto arrunten sal-

mentek uztailean. Alokairu etxek erositako ibilgailu kopuruaren igoera %7,3koa izan da uztailean. Hala ere, azken alor horretako salmentek behera egin dute (%3,8) azken zazpi hilabeteak emaitzak zenbatuta.

**Prever plana** • Salmenten igoeraren eragile garrantzitsuenetako bat Prever plana izan da. Prever plana Espainiako Gobernuak jarri zuen indarrean duela urte eta erdi inguru, eta dirulaguntza publikoak ematen ditu errepideetatik auto zahar bat (hamar urte baino gehiagoko autoa) ateratu eta berri bat erosteko.

Edozein motatako ibilgailua erosteko ematen ditu laguntzak

Madrilek, eta horrek Europako beste herrietako garraiolarien haserrea eragin du, Espainian garraioan lanean aritzen direnek lehia desleiala egiten dietela uste dutelako.

Gauzak horrela, Prever planaren industria ibilgailuei buruzko atala Bruselako Lehiarako Batzorderan aztertzen ari dira, bidezkoa den eta lehia desleiala eragiten duen ala ez erabakitze-ko.

Nolanahi ere, 112.300 herritarrek jaso dituzte dagoeneko Prever planaren laguntzak. Iaz, berriz, 127.000 autoren erosketa lagundu zuen diruz Espainiako Gobernuak.

**Euroa eta luxuzko autoak** • Renault motako autoak dira gehien saltzen direnak. Orotara, urte hasieratik 99.220 Renault saldu dira. Seat motakoak dira gehien saltzen dutenen zerrendan bigarren tokian dauden ibilgailuak. Uztailean gehien saldu den autoa

Renault Megane motako autoa izan da, saltzaileek esan dutenez.

Luxuzko autoen salmentak ere igoera nabarmena izan du. Euroa indarrean sartuko den eguna hurbildu ahala, Rolls Royce, Cadillac, Ferrari, Jaguar eta Chevrolet motako autoen salmentek %100etik %400era bitartean egin dute gora. Chevrolet motako 133 auto saldu dira urtariletik, iaz baino 109 gehiago. Iaz 24 baino ez ziren saldu. Cadillac motako 50 auto saldu dira. Eldorado eta Seville dira gehien saldu diren Cadillac etxeko modeloak.

Saltzaileek diotenez, auto garstien salmenten gorako joera ez da etengo. Aitzitik, areagotu egingo da, luxuzko autoetan, itsasontzietan eta etxebizitzetan. «Luxuzko autoen eta etxeren ordainketak dirutan egiten dira. Erosle gehienak Espainiako herritarrek dira, baina Europakoak ere badira Espainian luxuzko autoak erostera etortzen direnak». X

### Gasolinaren gehienezko prezioak behera

GASOLINAREN gehienezko prezioak jaitsi egingo dira bihar Espainiako Estatuan. Jaitsiera 0,4 zentimokoa izango da super gasolinarentzat, eta 0,3 pezetakoa berunik gabekoarentzat. Ondorioz, datorren astean super gasolinaren litroa 116 pezeta kostatu ahalgo da gehienez gasolindegietan, eta berunik gabeko gasolina 111,6 pezeta. Merkatze horren arrazoia petrolioaren kotizazioak nazioarteko merkatuetan izan duen jaitsiera izan dela azaldu du Madrilgo Industria Ministerioak. X

### Renaultek %18,6 gehitu du fakturazioa ekaina bitartean

RENAULT Frantziako auto konpainiak 121.690 milioi libera fakturatu ditu aurtengo lehenengo sei hilabeteetan (hiru bilioi pezetatik gora), iazko epe beran baino %18,6 gehiago. Frantziako multinazionalak %16,8 gehitu du kotxe salmenta eta %35,5 industri ibilgailuena (45.664 ale). X

### DLI-ADL taldeak 45.000 milioi pezeta fakturatuko ditu

INFORMATIKA alorreko DLI eta ADL konpainiek osatutako taldeak 45.000 milioi pezeta fakturatuko ditu aurtengo Espainiako Estatuan. DLIk informatika produktuak banatzen ditu, eta ADLk ordenadoreak egiten ditu. Bi enpresek talde bat osatzea erabaki dute. «Espainiako informatika alorreko talde nagusia osatzeko», adierazi dute. X

### Frantziako eskariaren hazkundera apalduz doa

FRANTZIAKO industri produktuen eskariaren hazkundera apaldu egin da urteko lehenengo sei hilabeteetan, Parisko estatistika erakundeak (Insec) jakinarazi duenez. Enpresariei galdetu ondoren ateratu du ondorio hori erakundeak, industri alorreko gehienek atzeman baitute joera hori. Eskariaren jaitsiera horretatik autogintza sektorea soilik libratu da, sektore horretako enpresek salmentak gehitzea lortu baitute. X

## Espainiako ekonomia %3,8 igo da apiriletik ekainera

*Soldaten igoera, batenaz beste %3, «kezkatzeko modukoa» dela ohartarazi du Espainiako Bankuak*

Agentziak / Madril

ESPAINIAKO ekonomia %3,8 igo da aurtengo bigarren hiruhilekoan, aurrekoan baino hamarren bat gehiago, Espainiako Bankuak azken txosten ekonomikoan adierazi duenez. Igoera horren oinarria barne eskariaren %4,5eko igoera izan da; kanpo eskariak behera egin du, ordea.

Txostenak dakarrenez, Espainiako hazkunde ekonomikoa %4 ingurukoa izan da azken urte eta erdian. «Horrek argiro erakusten du gaur egungo goraldiaren sendotasuna», dio Banku Zentralak.

Eskariaren osagarrien artean, diru erakundeak kontsumo pri-

batuaren igoera azpimarratu du, batez ere ondasun iraunkorren kontsumoa.

Inbertsioari dagokionez, ekipo ondasunetan egindakoa «ekonomiaren osagarririk dinamikoena da». Bankuak ez du aurreikusitako industri inbertsioek behera egingo dutenik, enpresen egoera faboragarria dela eta.

Hazkunde prozesu horrekin batera, enplegua sortzen eta langabezia jaisten ari direla azpimarratu du bankuak. Horretaz, enpleguaren sorrera neurri handi batean sasoiaren menpe egon arren, lanpostu finkoen sorrera gehitzen ari dela nabarmendu du.

**Soldata eta prezioak** • Alderdi txarren artean, soldata igoera aipatu du Espainiako Bankuak bere txostenean. Erakundeak «kezkagarritzat» jo du negozioazio kolektiboaren inguruan izandako azken datuak, horien arabera sinatutako azken lan hitzarmenetan %3 inguruko soldata igoerak jasotzen baitira.

Hori dela eta, bankuak ohartarazi du Espainiako lan kostuak euroaren taldean sartuko diren gainontzeko lurraldeetan baino gorago daudela. Aurtengo batez besteko soldata igoera %2,5ekoa dela gogoratu du, urte osorako inflazioaren prebisioa %2,1ekoa izanik.

Prezioei dagokionez, erakundeak ontzat jo du apiriletik ekainera bitartean inflazioak izan duen bilakaera, baina horretan ere kezkatzeko arrazoirik aurkitu du, hain zuzen ere, zerbitzu sektoreen egoerari dagokionez. Turismo eta aisia alorretako ondasunen prezioak, eskari handiaren eraginez, igo egin dira azken hilabeteetan, enpresek errentagarritasuna handitzeko aprobetxatu baitute.

Nazioarteko testuinguruan, Asiako egoerak zalantza eta egonkortasunik eza sorrarazten duela dio Espainiako Bankuak argitaratutako txosten ekonomikoak. X

### SOZIEATEAREN EGOITZA ALDAKETA

#### "CONSTRUCCIONES SUQUIA, S.A."

"Construcciones Suquia, S.A." sozietateak erabaki du sozietatearen egoitza Donostiako hurrengo lekua honetara aldatzea: Lugaritz pasealekua, 21, 3. solairua, Iza Eraikina.

Donostian, 1998ko abuztuaren 4an. ADMINISTRAZIO ORGANOA